

E Z E
L A R
K I R
A N A
R T D
Z I E
A A A
L K
A O

S I S
T E T
E M
A N

H O R
N E T
A N

D E S E R A
Z U R E
I K I

DESIRAK



SISTEMA HONETAN ELKAR ZAINTEA ERRADIKALA DELAKO, DESERAIKI ZURE DESIRAK!

1. ARIKETA. Desirak nola ulertzen ditugun:

Gure definizioa: Desirak eraikiak dira, ez dira naturalak, ez dira jaiotzetik sortzen zaizkigun zerbaitez, dohaiak izango balira bezala. Bizi garen sistema kapitalista heteropatriarkalean desirak funtzio jakin bat betetzen dute: egungo sistema eustea. Maitasun erromantikoak ere funtzio hau betetzen du, norbere barruko desira gisa ulertzen dugu, baina ezinbestekoa da lan feminizatu eta inbisibilizatuak egitera behartuak egoteko adibidez. Beraz, desirak ez dira neutroak. Horregatik, eraikiak izan diren gisan, deseraiki daitezkeela uste dugu. Geure desira propioak eraiki behar ditugu, proiektu kolektiboak imajinatzen, bizi proiektu askatzaileak sortzeko, borrokatzeko... gogoia emango digutenak.

Ariketaren azalpena:

Ariketa honen helburua desira gisa zer ulertzen dugun hausnartzea izango da. Horretarako positak erabiliko ditugu eta bakarka "DESIRA" hitzarekin burura etortzen zaigun hori idatziko dugu. Ariketaren bidez, hitz horrekin gure imajinarioan zer pizten den aztertu nahi dugu, honek emango baitugu gure ulerkeraren gaineko definizioa.

Horren ostean, guk eraiki dugun definizio edo irudikapen hori, goian azaltzen den definizioarekin alderatuko dugu.

- Zein antzekotasun eta ezberdintasun daude?
- Nola ulertzen dugu hasieran azaldutako definizio hori?

Materiala:

- Positak.
- Boligrafoak.

2. ARIKETA. Nola iritsi gara honaino?

Ariketaren azalpena:

Ulertzen badugu gure desirak eraikiak izan direla eta bizi garen sisteman funtzio bat betetzen dutela, hauek nola barneratu ditugun hausnartuko dugu.

- Non, zein esparrutan barneratu ditut nire desirak?
 - Eskola, familia, komunikabideak, instituzioak...
- Zein formatan barneratu izan ditut desira hauek?
- Zein harreman dute eraiki ditudan desirak emakumetasunarekin?
- Ditudan desirak zein funtzio dute jendartean?
- Nire desiren arabera zein bizi espektatiba osatu ditut?
 - Familia, etxea...

Garrantzitsua da ariketa modu pertsonalean egitea. Geure buruari gauden lekura nola heldu garen galdetu behar diogu hau deseraiki eta eraldatu ahal izateko.

Ariketa pertsonala egin ostean, taldearen arabera plenarioan edo albokoarekin partekatuko dugu.

Materiala:

- Papera
- Boligrafoa

3. ARIKETA. Proiektu kolektiboak eraikitzen: DESIRAK!

Ariketaren azalpena:

Desirak deseraikitzeaz gain, geure desira propioak eraikitzea aldarrikatu behar dugu. Bizi eredu askatzaileak eta proiektu kolektiboak sortzeko beharrezkoak ditugu desirak: elkarrekin pentsatu eta bestelako mundu bat imajinatzen beharrezkoak ditugu.

Ariketa honetan horien inguruan hausnartuko dugu:

- Zer nolako bizitzak nahi ditugu?
 - Non, nola, norekin bizi behar gara?
 - Zertan igaro nahi dugu denbora?
 - Nola antolatu nahi ditugu gure herriak, kaleak?
 - Nola antolatuko dugu gure aisialdia eta denbora librearekin?
 - Zeren baitan?
 - Zein toki izango du komunitateak?
- Horretarako zein desira sortu behar ditugu?

